

Lehen Mundu Gerra beranduegi amaitu zen



US WAR DEPT.



L'UNION

Ezkerrean, frantziar soldadu taldea, Gouraud jenerala buru eta metrailadoreak prest, Marne inguruko eliza baten hautsikinetan, 1918an. Eskuinean, Augustin Trébuchon, Lehen Mundu Gerran hildako azken soldadu frantziarra.

VRIGNE-SUR-MEUSE (FRANTZIA), 1918KO AZAROAREN 11KO GOIZA. Henri Gouraud jeneralaren aginduak betetz, frantziar armadako 163. infanteria dibisioak Meuse ibaia zeharkatu zuen, Hanneton alemaniarren elite unitateari erasotzeko prest. Egun hezea, hotza eta lainotsua zen eta lehen bajak ibaia itota hil ziren. Laino itsua barreiatzen hasi zenean, alemaniarrek izan ziren metrailadoreei eragiten lehenak. Berehala erantzun zuen frantziar artilleriak, eta Lehen Mundu Gerra etenaraziko zuen armistizioa indarrean jarri bitartean luzatu zen gatazka, goiz hartako 11ak arte, hain zuzen. Frantziarren bandoan 91 hildako eragin zituen azken orduko gatazka hark eta denean azkena Augustin Trébuchon izan zen, 40 urteko artzain eta soinujoia.

Iturri batzuek diote 10:45ean hil zutela, besteek 10:55ean izan zela. Kontua da Gerra Handia ofizialki amaitu baino minutu gutxi lehenago jo ziotela tiroa buruan. Gainera, mezularia izanik, Trébuchonek bere unitateko gainerako kideak baino lehen jakin zuen bakea sinatuta zegoela eta gerra, praktikan, amaitua zela. Izan ere, hil zutenean, mezu bat zeraman soinean bere kapitainari emateko. *Rassemblement à 11h 30 pour le ravitaillement* zioen paper zatiak, ordu horretan jan-edanak hartzeko bildu behar zutela, alegia. Aginteak, su-etena ospatzeko, soldaduen artean zopa beroa banatuko zuen. Baina Trébuchonek ez zuen lortu arma-lagunen barrenak zopaz eta

pozez berotuko zituen mezua helaraztea.

Trébuchonen hilarran jartzen du soldadua azaroaren 10ean hil zela. Dirudienez, egun hartan hildako beste hainbat soldaduren heriotza data ere egun bat aurreratu zuten. Agintari militarrek ez omen zeuden oso harro, su-etena adostu eta gero ere soldaduek gatazkara bidali izanaz. Armistizioa egun hartan bertan sinatu zen, goizaldeko 5ak inguruan, baina bi egun lehenago alemaniarrek amore eman zuten negoziazioetan eta, praktikan, erabakia hartuta zegoen.

Azken baja militar frantziarra izanda ere, Trébuchon ez zen izan erorita-ko azkena. George Lawrence Price kanadarra 10:58ean hil omen zen, eta Henry Gunther estatubatuarra 10:59ean. Galtzaileen alderdiko azken hildakoaren izenik ez dakigu, baina britainiar kapitain baten oharren arabera, 11:15ean soldadu aleman bat hil zuten metrailadorearekin tiro egiten jarraitzen zuelako. 1918ko azaroaren 11 hartan, Lehen Mundu Gerraren azken orduetan, 8.206 zauritu eta 2.738 hildako izan ziren ofizialki, baina frantziarrak behintzat azken hildako kopurua estaltzen saiatu zirela kontuan izanik, pentsatzekoa da benetako zifra handiagoa izan zela. Zenbat milaka bizitza salbatuko zatekeen menia adostu zuten une berean sua eten izan balute? Huskeria, gerrako lau urteetan hildako milioika pertsonarekin alderatuta. ■



Arrastoak Nondik dator Gaztela- Mantxaren “mantxa”?

1982AN, autonomia estatutua onartzean, lehen Gaztela Berria zena Gaztela Mantxa bihurtu zen. Mantxa toponimoa askoz zaharragoa da, ordea. 1691n Mantxa izeneko probintzia sortu zen Iberiar penintsulako mesetan, baina toponimo ofiziala izan baino lehen ere, askoerabiltzen zen inguru haietan; mende horren hasieran, Cervantesek bere maisulanaren izenburuan bertan adierazi zuen On Kixote Mantxakoa zela.

Toponimoa ez dugu gaztelaniatik itzuli behar —ez du “orbana” esan nahi—, arabieratik baizik. Zenbaiten arabera, *Manxa* edo *Al-Mansha* hitzean du jatorria, eta “urik gabeko tokia” esan nahi du. Beste batzuek diote *Manya* hitzetik datorrela, eta beraz, “goi-ordokia” edo “goragunea” pñ.esan nahi duela. Horrenbestez, toponimoaren jatorria Erdi Aroan dago, XIII. mende inguruan, arabiarrek penintsularen erdialdea konkistatu zuten garaian. ■



LOURDES CARDENAL